

AMETS ELOSEGI MARTIN

E Maila | Bertsoa | aipamen saria

Kaixo, ni Amets Elozegi beasaindarra naiz. 11 urte ditut eta Andramendi ikastolara joaten naiz. Nire zaletasunak hauek dira: jolastea, musika entzutea, musika jotzea, futbola ikustea, kirola egitea... Etorkizunean teknologiarekin gauzak sortzen dituen, perkusio eta tronboi jolea eta txarangako tronboilaria izan nahi dut.



BILBO

Doinua: Ikusi nuenean

Gaur Marijaiarekin
nago Guggenheimen,
Bilboren historia
ikasteko hemen.

Hogeigarren mendeko
borroken ostean,
ontziolen mundua

iraultza betean.

Krisialdiarekin
berreraiki zuten,
Nerbioi ingurua
turistez betetzen.

Orain Athleticceko
gola San Mamesen,
eta irabazteko
esan dugu “amen”